

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



■ GOIZUETA UMORE ONA  
ABESBATZA

## Tuterako lagunekin bat, elizan

Nafarroako iparraldea eta hegoaldea kantuz lotuko dituzte gaur Goizuetako Umore Ona abesbatzak eta Tuterako Tuterakantuzek. 12:30etan eskainiko dute kontzertua, elizan. ||

■ ASTIGARRAGA ONDAREA

## Ateak irekita, euskal ondarea erakusteko

Europako Ondarearen Jardunaldien barruan, ateak irekiko ditu gaur Petritegi sagardotegiak, goizeko 11:30etatik eguerdiko 13:30etara. Horretarako, familia osoarentzat euskal sagardogintzaren inguruko jarduerak egingo dituzte, baita inguruko ekoizleekin azoka txiki bat ere. Sarrera debalde izango da. ||

■ HERNANI XAKEA

## Bigarren erronda, Kixkalen

Hernaniko Xake Txapelketa martxan da; bigarren jardunaldia jokatuko dute gaur 16:00etan, Kixkalen. Denera, hamabi partida jokatuko dituzte. ||

■ HERNANI AIRE GARBIA

## Hurrengo bilera, asteartean

Hernani Aire Garbia taldeak asteartean egingo du hurrengo bilera, 19:00etan. ||

■ HERNANI DOBERA

## Liburua, erronkaz

Euskara Ari Duren *Baietz Hernanik!* erronkaren inguruko liburua aurkeztuko du Dobera Euskara Elkarteak asteartean. Arratsaldeko 19:00etan izango da, Biterin. Amagoia Mujikak idatzi duen liburua, bertan banatuko da, doan. ||

■ HERNANI IRRISTAKETA

## Saioa gaur, doan

Irristaketa ikastaroa eskainiko dute gaur, debalde. Hiru talde izango dira, 10:00etan hasita. Informazioa: 689 034 562. ||

■ HERNANI ERRUGBIA

## Azkeneko momentuan ihes, garaipenak

24-30 galdu zuen atzo Hernanik Burgosen kontra, etxean; defentsako bonusa lortu zuten, hala ere. Ondorioz, hiru punturekin, Heinekin Ligako azken postura jaitsi dira hernaniarrak.

AZKEN momentura arte eutsi behar izan zioten hernanirrek Landaren, baina ezin izan zuten. Partidu parekatua izan arren, Burgos gailendu zen bukaeran 24-30eko markagailuarekin. Hernanik, hala ere, defentsako bonusa esku-ratzea lortu zuen.

### Lehenengo zatian, Burgos aurretik

Burgos bisitariak estreinatu zuen markagailua 7garren minutuan, eta aurretik jarraitu zuen atsedenera arte [3-20].

Aldaketa bigarren zatian etorri zen. Orduan egin zituzten hernaniarrak partiduko hiru entsaioak. Azkenekoan, gainera, Burgosen aurretik jartzea lortu zuten [24-23] 68garren minutuan.

Hala ere, ez zuten mantentzea lortu eta galdu egin zuten. Ondorioz, hiru punturekin, Heineken Ligako azken postura jaitsi da Hernani. ||



Giro ederrarekin jokatu zuten partidua Landaren.

■ HERNANI DISKA ETA LIBURUEN AZOKA

## Diska eta liburuen azoka gaur, Plaza Berrin

Goizeko 10:30etatik eguerdiko 14:00ak bitarte izango da aukera diska eta liburuak merke-merke erosteko. Material bilketa ere egingo dutela adierazi du Kaleko Kultur Elkarteak.

BESTE behin ere, diska eta liburuen azoka jarriko du Kaleko Kultur Elkarteak Plaza Berrin. Gaur jarriko dute postua, ohi bezala, goizeko 10:30etatik eguerdiko 14:00ak bitarte.

### 1.000tik gora material

Hernaniarrak denetarik topatu ahal izango dute Kaleko

Kultur Elkarteak Plaza Berrin jarriko duen postuan. Denera, 1.000 izenbururen artean aukeratu ahal izango da; tartean izango dira diskak, CDak eta liburuak.

### Material bilketa, ere bai

Materiala saltzeaz aparte, bilketa ere egingo dutela

adierazi dute: «nahi duenak, erabiltzen ez dituen liburu, musika-CDak eta binilozko diskoak eman ditzake». Dena den, jakinarazi dute ez dela jasoko ez entziklopediarik, ezta rebistarik ere.

Egunean bertan ez ezik, haiekin harremanetan jarri ere, jasotzen dute material

hori. Horretarako, *azokasolidario@gmail.com* helbidera idatzi behar zaie.

Azokaren inguruan informazio gehiago behar duenarentzat, webgunea ere badute: *www.azokasolidario.eus*. Egiten dituzten ekintza guztien berri ematen dute bertan, modu irekian. ||

restaurante **ZU** **ma** **rdi**

igandeko menua

LEHENENGO PLATERA  
Perretiko eta gula entsalada epela  
Urdaiazpiko iberiko razioa  
Etxeko folie micuit tostadoak  
Plantan egindako langostino taula

BIGARREN PLATERA  
Labean erretako legatza  
Esneko arkume errea  
Behi azpizuna foi saltsarekin

30 €

Etxean egindako postre gaxoak...  
Ogia, rioja kiantza ardoa, rueda txuria, sagardoa...

orkolaga kalea, 2 hernani  
943 33 60 56

**TILIN \* TOLON**

BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK  
KONTSULTAK  
943 55 56 94

Txirita, 10 - HERNANI

**Latxe**

Urumeako ur-tükitan barrera

13. alea  
kalean!

latxe@kronika.eus 943 33 08 99

**GAUR** Ildo beretik hasiko da gaurko eguna. Goizean zerua oskarbi egongo da, eta eguerditik aurrera, lainotzen hasiko du. Hala ere, ateri eutsiko dio. Tenperaturak pixka bat behera: **Min.13° / Max.22°**

**BIHAR** Lainotuta hasiko da biharko eguna. Arratsaldean lainoak gutxitu egingo dira eta zerua garbi geratuko da. Norabide aldakorako haize suabea ibiliko da, eta tenperaturak berlirtsu jarraituko du: **Min.14° / Max.23°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Erebeste** Elcano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## HERNANI ODOL EMAILEEN ELKARTEA

# 25 hernaniarrek jasoko dute diploma gaur, odola emateagatik

Eguerdiko 13:15etan hasiko da festa, Urnietako Oianume jatetxean.

URTEROKO festa izango du gaur Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteke Oria Beheko Ordezkaritzak, tartean, Hernanikoak. 25 emate baino gehiago egin dituztenak omenduko dituzte, aurten, 25 hernaniar izango dira bertan.

Ohi bezala, Urnietako Oianume jatetxean izango dute festa, 13:15etan hasita. Orduan egingo zaie ongietorria ordu-laurden beranduago omendurak izango direnei. Ondoren, bazkaria izango dute.

**25 hernaniarrek, diploma** Omendu horien artean izango dira hernaniarrak. 25 estrakzio egin izanagatik 9 omenduko

9 omenduko dituzte 25 estrakzio egiteagatik; beste 9, 40-50 egiteagatik, eta beste 7, 60 baino gehiago egiteagatik.

dituzte: Pedro Herrero Alvarez, Soraya Iturralde Prieto, Cecilio Jauregui Rodriguez, Unai Lacadena Arrieta, Jose Antonio Ochotorena Eguilegor, M. Resur Olazabal Peñagarikano, Begoña Ormazabal Esteban, Jose Miguel Sanchez Gonzalez, Iñaki Urretabizkaia Landaberea.

40 estrakzio egiteagatik: Ixiar Balda Etxarri, M. Teresa

Monge Arraras, eta M. Josefa Olariaga Mendiguren. 50 estrakzioagatik: Eneko Ayestaran Biurrarena, Jose M. Bergaretxe Anabitarte, Juan Bergaretxe Anabitarte, Leoncio Lekuona Goya, Fernando Narvarte Salaberria, eta Eduardo Zabala Sarobe.

60 estrakzioagatik, beste lau: Josefa Alcorta Irazusta, Adelaida De Celis Baños, Asunción Ochotorena Loinaz, eta Angelines Vera Aguado.

75 aldiz eman izanagatik: Manuel Irastorza Goitia eta Francisco Javier Rodriguez Apaolaza. Eta azkenik, 100 estrakzioagatik: Francisco Javier Ormaechea Arriaran. II

## HERNANI TXANTXILLAKO FESTAK



Lasterketaren ondoren jaso zituzten sariak gizon eta emakume azkarrenek.

# Intxauspe eta Fernandez, arimen aurretik

Santa Barbara igo zuten 30 bat korrikalarik; arimek, aldiz, kalejira.

SASOI betean hasi zuten eguna atzo Txantxillako auzotarrek herri lasterketarekin; arimek hartu zieten lekukoa arratsaldean kalejirarekin festei agur esateko.

### 30 bat korrikalari

Herri lasterketaren bigarren edizioan, Xabi Intxauspe hernaniarra izan zen azkarrena gizonetan Santa Barbara igozten (0:26:49); emakumeetan, aldiz, Ane Fernandez donostiarra (0:34:05). Jarraian iritsi dira: gizonetzkoetan, Iñigo Gurrutxaga donostiarra eta Xabat Pagola hernaniarra; eta emakumezkoetan, Ana Rodriguez hernaniarra eta Arantxa Atxukarro berastegierra. II



Arimen kalejiran ederki pasa zuten auzoko gaztetxoek.

## ASTIGARRAGA ESKU PELOTA

# Zilarrezko domina Gurutzealdeak, Pauen

Galdu egin zuen Eneko Maizek, Gurutzelderen kideak, Battitta Ducassou itsasuararren kontra.

ZILARREZKO domina kolkoratu bukatu du Trinketeko Munduko Txapelketa Oier Gurutzealde astigarrarak.

Eneko Maiz villabonarrarekin batera jokatu du eskuz banaka; azken honek, Battitta Ducassou itsasuarra, Frantziaren selekzioaren ordezkariaren kontra jokatu zuen atzo, eta galdu egin zuen 15-8, 11-15 eta 3-10. Hortaz, Frantziak jaso zuen urrezko saria.

**Sekulako txapelketa, Gurutzealdeak eta Maizek** Partidu ikusgarrian jokatu zuten urrezko domina atzo. Astigarraren kideak irabazi zuen aurreneko seta; itsasuarrrak, aldiz, bigarrena. Desentepatea, beraz, azkeneko setean jokatu zen.

Zilarra, beraz, Gurutzealde eta Maizentzat; sari potoloa biek egindako txapelketa ederregatik. II

## ASTIGARRAGA GAZTELEKUA

### Sukaldaritza mexikarra, gaur

Atzoko irteeraren ondoren, egun lasaiagoa izango dute gaur Astigarragako gazteek. Hain zuzen, sukaldaritza mexikarraren inguruan ikasteko aukera izango dute, tailer baten bidez. II

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**† ESKERTZA**


**Trini Arozena Apezetxea**  
(Joxe Oiarbide "Tantua"ren alarguna)  
Orain egun gutxi hil zen

- Goian bego -

Familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretzen guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztioi ere.

**ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK**

Hernanin, 2019ko urriaren 27an




**I. URTEURRENA**

**Pepi Errazkin Aldasoro**  
(Rikardo Etxeberriaren alarguna)  
2018ko urriaren 27an hil zen, 74 urte zituela.

Joan zinen baina gure artean zaitugu.

Hernanin, 2019ko urriaren 27an



## IRAGARKI MERKEAK

**Pisua eta trasteroa salgai Lizarraga kalean, Lizeagan, 2 logela, sukalde, sala eta komuna.**  
Deitu: 659 106 467

**Gutxi erabilitako konpresore trifasikoa salgai. 500 €. Deitu: 688 651 438**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)